



Idazki honen bitartez, GEHITU Euskal Herriko lesbiana eta gayen elkarteko Koordinazio Kontseiluak 2003ko abenduaren 10ean ospatutako bileran haxe erabaki duela jakinarazi nahi dizut

### **EUSKO LEGEBILTZARRARI 2003ko Zilarrezko GEHITU Saria ematea**

iragan maiatzean Izatezko Bikoteen Euskal Legea onartzeagatik. Lege honek gure Erkidego Autonomoaren eskumenak sakonki aztertzen ditu, ezkonduko bikoteen eta bikote homosexualen arteko egoera legala parekatuz. Euskal herritar guztien ganbara legislatiboak berdintasunarekiko konpromisoa erakutsi du. Aldi berean, herritar guztiok duintasun eta errespetu berberarekin bizitzea merezi dugularen konbentzimendua adierazi du. Halaber, edonoren nortasunaren garapen librerako eskubidea, gizarte honen konbentzientziarako zutabe oinarritzko eta eztaba daezina izan behar duela ere. Erabaki guztiok, Euskadi, mendebaldeko gizarte aurreratuenen artera eramanez, familia homoparentalen errekonozimenduari dagokionean.

Aldi berean aipamen berezia egin nahi dugu Legearen testu definitiboaren garatzeaz arduratu zen Ponentzia parlamentarioarentzat. Ponentzia honi gehiengoaren kontsentsua lortzeko egindako ahalegin berezia eskertu behar zaio. Eskertzekoa da, propiotzat hartu egin dituela gay eta lesbianek aldarrikatzen dituzten oinarritzko eskubide legitimoak, gaur egun neurri handi batean onartzen ez zaizkienak hain zuzen ere.

Heldu diren egunetan saria eskura eman nahi genieke. Gure borondatea da ekitaldi horretan Legearen ponenteak egon daitezela eta parte har dezatela, euskal gizartearen elkartasun eta kontsentsuaren adierazle gisa lesbiana, gay eta transexualen eskubideei dagozkien gaitan.

Donostia, 2003ko abenduaren 23a

GEHITUKO Presidente  
Iñigo Lamarca Iturbe